

"Moda Museoan" diseinatzaileen I. Lehiaketa Moda greko-erromatarrean inspiratutako diseinuak

Parte-hartzeko oinarriak

Irungo Oiasso Erromatar Museoak, KoöKoö modelo agentziaren lankidetzarekin, "Moda Museoan" diseinatzaileen I. Lehiaketarako deialdia egin du. Nazioarteko izaerakoa da eta Moda greko-erromatarrean inspiratutako diseinuetan oinarritzen da. Ekimena Dies Oiassonis Irungo VI. Erromatar Jaialdi programan eta Moda Museoan proiektuan kokatzen da.

Lehiaketara aurkeztuko diren diseinuen aurkezpena eta lehiaketaren epaia uztailaren 17an egingo den desfile batean eskainiko dira, 20:00etan, Oiasso Museoan, KoöKoö agenziako modeloekin.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere hiru diseinu aurkeztu ahal izango du, gizonezkoen zein emakumezkoen modakoak eta derrigorrezkoa da diseinu horiek aurkeztuak ez izanak beste lehiaketa batean, ezta desfile batean ere. Diseinuak antzinako Greziako eta Erromako modan inspiratuta egongo dira. Ondoko estekan ikusi ahal dira antzinako hainbat eskulturaren adibide batzuk, erreferentziatzat hartu ahal direnak:

<https://www.flickr.com/photos/oiasso/sets/72157651768474656/>

Izena emateko prozesuak bi fase ditu:

1. **Lehen fasea: izen ematea eta zirriborroak aurkeztea.** Apirilaren 15etik maiatzaren 15era. Izen-ematea (doakoa) formalizatzeko, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:
 - Zirriborroaren edo diseinuari buruzko irudien aurkezpena (paperean edo formatu digitalean).
 - Zein material erabiliko diren adierazi behar da.
 - Diseinatzailearen curriculum, modaren munduan duen esperientzia adierazita (gehienez, DINA4 orrialde bat).
 - Izena emateko formularioa, Google Drive-tik behar bezala Beteta, lotura honetan:
<https://docs.google.com/forms/d/1V6mNbFeh62GiRnMFq6NlrGxZDGeG5zbOXN-PGh5wr1U/viewform>

Dokumentazioa hona bidali beharko da:

Moda Museoan Lehiaketa
Oiasso Erromatar Museoa
Eskoleta, 1
20302 Irun (Gipuzkoa)

edo

actividades.oiasso@irun.org helbidera.

Epe hau amaitzen denean, lehiaketaren antolatzaileek aukeratuak izan diren ala ez jakinaraziko die parte-hartzaileei.

Zirriborroak bidaltzeko/itzultzeko eta bildumetako gastuak lehiaketan parte-hartzaileen kontura izango dira. Garraioa zorretan dela jaso ahalko dira aurkeztutako zirriborroak eta bildumak 2015eko uztailaren 30a baino lehenago. Adierazitako epean ez badira jaso zirriborroak eta bildumak, ulertuko da egileak uko egiten diola bere jabetzari antolatzaileen alde, eta antolatzaileek horiek era librean erabili ahalko dituzte eta egileak ezingo du inolako erreklamaziorik egin eskubideei buruz. Antolatzaileek ez dituzte beraien gain hartuko lehiaketako parte-hartzaileek emandako materialek eduki ditzaketan kalteak.

2. **Bigarren fasea: bildumen aurkezpena.** Maiatzaren 15etik ekainaren 30era. Diseinua egitea eta ematea Oiasso Museoan.

Hautatzen diren diseinuek parte hartuko dute 2015eko uztailaren 17an (ostirala), 20:00etan, Irungo Oiasso Erromatar Museoan egingo den desfilean. Une horretan epaileek baloratuko dituzte bildumak eta palmaresaren berri emango du.

Epaimahaia

Modaren eta kulturaren munduan garrantzi handiko bost pertsonak eratuko dute epaimahaia.

Sariak

1. saria: 1.000 euro.
2. saria: 500 euro.
3. saria: 1.000 euroko txeketa, Bilboko Inedi Design School-ak emanda, kurtso hauetako batean erabiltzeko: "Postgrado en editorial de Moda /Fashion Issue", "Estilista Diseñador de Moda", "Postgrado en Pattern Design" edo "ESDGCA (Estudios Superiores de Diseño Gráfico y Comunicación Audiovisual)".

Dagozkien zergen atxikipenak egingo zaizkie sariei.

Moda Museoan lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Izen ematean jasotzen diren izaera pertsonaleko datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Legeko indarrean dagoen legediaren esparru juridikoan tratatuko dira.

Informazio gehiago eta kontaktua: actividades.oiasso@irun.org / +34.943.63.93.53